

## LABORAL KUTXA TXARTELEN KANPAINAREN OINARRIAK

---

### 1.- Erakunde antolatzailea eta zozketaren data

Caja Laboral Popular S. COOP. sozietateak —aurrerantzean LABORAL Kutxa—, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500— duenak, GIFT4you atarirako (<http://laboralk.gift4you.es>) 100 euroko 150 txeke zozkatuko ditu, sustapen baten barruan.

### 2.- Doakotasuna

Zozketa hau doakoa da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

### 3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

18 urtetik gorako bezero pertsona fisikoek hartuko dute parte zozketan, betiere 2018ko martxoaren 1etik apirilaren 30era bitartean LABORAL Kutxaren kreditu- edo zordunketa-txartel partikularrekin gutxienez 300 euroko ordainketak egiten badituzte. Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutxako langileak eta zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak.

Irabazleek egunean eta positiboan izan behar dituzte entitatearekin kontrataturiko produktuak edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Bestela, saria baliogabetzeko eskubidea erabili ahal izango du entitateak.

### 4.- Zozketa

Zozketa 2018ko martxoaren 20an egingo da, ausazko sistema informatikoaren bidez, kanpainaren barruan —2018ko martxoaren 1etik apirilaren 30era, biak barne— zozketaren baldintzak betetzen dituzten pertsona guztien artean.

Gainera, zozketan ordezkotako 15 izen aterako dira, badaezpada, irabazleek baldintzak betetzen ez badituzte ere.

Entitatearen datu-basean gordetako bezeroen datuak erabiliz saridunekin harremanetan jartzerik ez badago 10 egun balioduneko epean, saria ordezkotzat izango da, zozketan ateratako hurrenkerari jarraikiz.

### 5.- Sariaren azalpena eta entregatzeko modua

GIFT4you atarirako 100 euroko 150 txeke zozkatuko dira. Entitateak egoki deritzen moduan eta lekuan emango ditu sariak.

Saria bide elektronikoz emango da; beraz, 100 euroko txekea jasotzeko, helbide elektronikoa eman beharko du irabazleak.

#### **6.- Sariaren zerga-sistema**

Saria indarreko legedian ezarritako zergen eraginpean egongo da. Sariak zerga-karga ekonomikorik badu, LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko. Zergen alorreko gastu guztiak irabazlearen kontura izango dira.

#### **7.- Irudi-eskubidea lagatzea**

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik bere izen-abizenak argitaratzeko, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan. Ez baditu baldintzok betetzen, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkoiari emango zaio.

#### **8.- Oinarriak onartzea**

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita sustapena geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere.

Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok [www.laboralkutxa.eus](http://www.laboralkutxa.eus) orrialdean kontsulta daitezke.